

27-28

Montserrat Manresa

24,6 Kms

Gizakiarentzat ez dago gauza zailik bere borondatea finko badu, bereziki maitasunez egiten den zerbait bada.

Etapa 27

Harrera-Tokiak

Datu Interesgarriak

Ignazioaren arrastoak

Autobiografia

Iruzkinak

Etapa 27

Montserrateko Mare de Deu agurtu eta Monasteriora iristeko hartu genuen Degotallsen bidea hartuko dugu. Beraz, aurreko egunean egindako bidea egingo dugu berriro alderantziz, eta atzoko errepidera itzuliko gara, baina orain ezkerrera hartuko dugu, berriro ezaguna dugun Santa Zezilia Ermitara zuzenduko baikara. Errepidearen paralelo doan bidexkatik joango gara, tunelaren eskuinaldetik igaro ondoren. Gorenean ikusiko dugu Ermita, errepide ondoan.

Ermitara iritsita, eskuinaldean beherantz doan bide asfaltatua hartuko dugu. Poste batek "GR-4 a Sant Cristofol" bidea adieraziko digu eta bertatik jarraituko dugu. Ermita ezkerrera utziko dugu eta bide asfaltatuan behera jarraituko dugu. Gure bidea errepidearen paralelo doa, baina beraren azpitik. Menditik jaisten diren uharrak igaroko ditugu.

Bizikletan doazen erromesek, hobe asfaltatu gabeko mendi-bidetik jarraitzen badute, bihurguneak eginez, abeltegi batzuetara doana, beti gure ezkerrera izango dugu. Mendi-bide bakoitzean, beti gure eskuinera ateratzen zaiguna

hartuko dugu, beti beherantz. Euri-bideraino jarraitu behar dugu eta beste alderaino igaro, asfaltatu gabeko bidetik igotzeko, eta mendi-bidearen amaieran (gurutzatutako burdin batzuek adierazten dute puntua) oinezko erromesekin topo egingo dugu, hauek mendi hegalean behera zuzenean jaitsi baitira.

Oinezko erromesek inolako galbiderik gabe jarraituko dituzte Sant Cristofolera eramango gaituzten GR-4 seinaleak. Hala adieraziko digu mendi-bide bateko bihurgune itxi batean dagoen posteak. Jaitsiera gogorreko mendi-bide bat hartuko dugu: eskuinera hartuko dugu. Bizikletaz doazen erromesek bat egingo dute gurekin. Gezi horiak ikusiko ditugu kontrako norabidean.

Can Prat urbanizazioan sartuko gara "Carrer de les Agulles" kaletik. Marka gorri eta zuriak jarraituko ditugu, beti aurrera kale horretatik. Batzuetan argi-posteetako seinaleak pintura arrosaz estalita daude baina ez dago galbiderik. Bihurgune itxi batera iritsiko gara gure eskuinean, eta bertan Manresarako bidea adierazten duen poste bat, ezkerrean. Kontuz bi bide daude-eta: bide zuzenean GR-4ren seinale gorria eta zuria daude, bidearen eskuinaldeko harri batean. Bide hau gu gatozen errepidearen perpendikularren dagoena da.

Beste bidegurutze bat: eskuinera hartuko dugu, Sant Jaume de Castellbell ermitara zuzentzen duena. Seinale gorri eta zuriak. Gure bidea Sant Cristofol herriko etxeen aurrean amaitzen da, eta hortxe sartuko gara herrian. Ezkerreko bidea hartuko dugu, Sant Jaume de Castellbell norabidea jarraituz. Uhar batera jaitsiko gara, GR-4 bidea jarraituz. Euri-bidea gurutzatuko dugu eta etxe bat utziko dugu ezkerrean. Beste bidegurutze bat: eskuinera hartuko dugu, seinale gorri eta zuriak jarraituz.

Asfaltatutako errepidera iritsiko gara eta ezkerrean hartuko dugu, zubira jaisteko. Castellbell eta Vilar norabidea hartuko dugu. Zubia pasa orduko, jatetxearen ondoan, bide bat agertzen da ezkerrean, aldapan gora. Poste batek adieraziko digu Manresarako bidea.

Asfaltatu gabeko bideak gure eskuinera datorren beste bide batekin bat egiten du. Beti aurrera jarraituko dugu, eta neurri handiko txerri abeltegiko batekin topo egingo dugu, ezkerrean. Abeltegiko etxeak igaro orduko, bidegurutze batera helduko gara: ezkerreko bidea hartuko dugu. Poste batek adieraziko digu bidea. GR-4 bidea (seinale gorriak eta zuriak) utzi eta orain seinale urdin eta zuriak jarraituko ditugu. Beste bidegurutze bat: eskuinekoa hartuko dugu. Bideak uhar

bat gurutzatzaera eramango gaitu, eta hori gurutzatu orduko beste bide bat hasten da eskuinera. Poste batek eskuinera adierazten digu Manresa eta Castellgalirako bidea, beraz eskuinera hartuko dugu.

Gure bideak beste bat gurutzatzen du eta eskuinera hartuko dugu. Aurrerago, beste bide bat hasten da ezkerredera, baina guk geuretik jarraituko dugu. Castellgaliko lehen etxeetara iritsiko gara: Txangozaleen Batasunaren kartel zahar batek adieraziko digu 2 ordu falta zaizkigula Manresara. Ezkerredera dagoen lehen kalea hartuko dugu, seinale zuri eta urdinak jarraituz. "Camino de Montserrat" kalean gaude eta bertatik beti aurrera jarraituko dugu.

Hirigunera hurbiltzen ari gara eta eliza ikusiko dugu goi aldean, gure aurrean. Bertara Sant Antoni kaletik iritsiko gara, eta hemen alde batera utziko ditugu seinale zuri eta urdinak eta Santiago Bidearen seinaleak, San Ignazioaren bideak zuzen jarraituko baitu, Elizaren atari-aurretik igaroaz. Beti aurrera jarraituko dugu, eta herriko etxeen amaieran, asfaltatu gabeko bide bat hasten da argindar-poste baten ondotik. Kartel batek adieraziko digu Manresatik Montserraterako X. mendeko antzinako erromes bidean sartu garela. Jaitsiera gogor bat hasiko dugu, C-55 norabidean. Jaisten jarraituko dugu, errepidera iritsi arte, eta ezkerredera hartuko dugu. Kontuz, zirkulazio handia baitago. Errepidetik jarraituko dugu 500m inguru eta euri-bidearen gaineko zubia igaro ondoren, ezkerredera dugun golf zelaia pasata, erdi asfaltatutako bidea hartuko dugu ezkerredera.

Gure ezkerredera dauden golf zelaiaren eta Cornet euri-bidearen ondotik joango gara. Toki honetan 1936an martiritzatutako bi mojarren oroitarria dago. Bidegurutzearan eskuinera hartuko dugu, euri-bidea ez gurutzatu behar izateko. Can Cornet masiaren aurrera iritsiko gara eta eskuinera jarraitzen duen bidea hartuko dugu, harrobi zahar batera igotzeko. Bidea Z egituran ari da aldapa igotzen. Bideko harri handiak adierazten digute harrobiaren hurbiltasuna, ikustera iritsiko ez bagara ere, bidea ez baita harrobitik igarotzen. Ia gailurrera iritsitakoan, labore-sail batzuen aurrean, bidea ezkerredera biratzen da. 200m barru, gure bidea beste batekin lotzen da, eta ezkerredera hartuko dugu. Metro gutxira izango dugu Manresako hiria gure begien aurrean.

Gure bidean beti aurrera eginez, ezker-eskuin agertzen zaizkigun bideei kasurik egin gabe, Oller del Mas gaztelura iritsiko gara. 1,5 km igaro orduko ezkerretik lotuko zaigu beste bide bat, eta metro gutxira gazteluko atetik 100 m-ra izango gara. Guk eskuinera hartuko dugu eta zutabe baten ondotik igaroko gara, zutabe

horrek erromatarren garaiko galtzada batean gaudela jakinaraziko digu eta seguru asko Ignaziok ere hau bera hartu izango zuen Manresara joateko. Gure eskuinera jaisten den bide bat utzi eta etxe batzuen aldera joango gara, gure ezkerrean etxeak utzi eta jarraitu egingo dugu. Jaitsiera labur baten ondoren, beste etxe baten sarrerara iritsiko gara eta puntu honetan erreka aldera jaisten den bidea hartuko dugu ezkerrean. Behera jaitsi eta zubi betetik gurutzatuko dugu.

Erreka igaro eta eskuinera biratuko dugu 50 m ingurura eta bide batean gora joango gara, bide horri jarraituko diogu harrizko horma baten ondotik. Gora iritsitakoan ezkerrean hartu eta etxe batzuen aldera joango gara eta zuzen jarraituko dugu bidegurutze batera arte, argindar zutabe handi batzuk ditu ondoan. Bidegurutzean eskuinera hartuko dugu, El Xup auzotik urrunduz.

Aurrera jarraituko dugu. Bidea eskuinera biratzen da bat-batean, abeltegi batean sartzeko: guk aurrera jarraituko dugu, bide zahar bat jarraitzeko, ez oso ongi markatua eta labore-sailen artean igarotzen dena. 200mra sardetu da bidea eta biderik estuena hartuko dugu, eskuinera zuzen jarraitzen duena

Gure bide-zidorrak bide asfaltatua gurutzatzen du. Zuzen jarraituko dugu Santa Caterina dorrean bidean, zelatatze antzinako dorrea; zuzenean Santa Caterinara joko dugu. Ezkerrean dugun parking batek lautuko digu bertara eramango gaituen bidea.

Dorretxera iritsita, geure aurrean ikusiko dugu Manresa. La Seu Basilika eta Sant Ignasi Kobako Gogojardunen Etxea. Behean ibaian zubi zaharra ikusiko dugu eta gurutzatuko, Loiolako Ignaziok orain 500 urte gurutzatu zuen bezalaxe.

Dorretxetik behera, honen aurretik ateratzen den bidea hartuko dugu Kobara bidean. Jaitsiera gogorra da, eta ia Guiako Amabirjinaren Ermitaraino eramango gaitu, eskuinera ikusiko duguna. Tradizioak esaten du, Ignazio puntu honetara iritsita, Amabirjinaren omenezko erromeria ospatzen ari zirela herritarrak eta, pentsatzekoa da, Ignazio, behar bada, Guiako Amabirjinarengana zuzenduko zela bere bidean ongi gidatua izan zedin. Errepidea hartuko dugu ezkerrean, trenbidearen gainetik zubi gurutzatzeko. Cardoner ibaiaren errepidera jaitsiko gara, eta eskuinera biratuko dugu Zubi Zaharrera zuzentzeko.

Zubi gurutzatuko dugu, leku sinbolikora iristen ari denaren hunkipenez. Gure aurrean dugu Sant Ignasi Kobaren eraikina. Zubiaren barrenean, pixka bat gure

ezkerraldera, Kobara doan kale bat dago.

Erromesek, lehenengo, Manresako antzinako Jesusen Lagundiko ikastetxera jo behar dute, Sant Ignasi kaleko 36a, egiaztagiriari zigilua jartzeko eta bukaerako ziurtagiria lortzeko Erromesen Arrerako Bulegoan. Bertara heltzeko, zubi zaharra zeharkatu, eta Sant Marc basilizaren ondotik igoko gara, Sant Ignasi bidetik, eta La Seu a nuestra basiliza ezkerrean utzita. 400 metrotan Sant Ignasi plazara helduko gara eta Rapteko basilizara. Manresako Udaletxeko Erromesen bulegoa metro gutxira dago.

Harrera-Tokiak

CASTELLGALÍ

Albergue de peregrinos. 689.00.83.59 Reserva:

Ayuntamiento. Tel: 938 33 00 21

CASTELLBELL I EL VILAR

Asociación Taxistas del Valle . 938 28 24 75

MANRESA

. Pl. Milcentenari, s/n. Tél. 938 750 396 A los peregrinos ignacianos se les aplica un 10% de descuento presentando la credencial

Apartamento Somiarte . <http://www.somiarte.com/#!bb/ctac> / somiartetaller@gmail.com / Tel: 630 538 838

Apartaments Grup Urbi . C/ Codinella, 9. Entresol 2^a. Tel: 93 876 82 41 - 606 99 35 37

Apartaments la Farola . C/ Canyelles, 5 Tel: 938 73 13 00

Apartaments Manresa . Tel: 660 551 333

Apartaments Turístics . www.manresaapartments.com / rentals@manresaapartments.com / Tel: 660551333

Casa d'Exercicis, La Cova de Sant Ignasi . Passatge de la Cova, s/n Tel: 938

720 422. Es indispensable llamar para reservar habitación y fijar el número de días de alojamiento disponibles. Tan sólo en 2022 pasaron 31.000 personas por la Cova y 6.000 participaron de sus actividades: ¡no contemos con encontrar habitación fácilmente!

Hostal Turó de la Torre . C/. Sallent, s/n Polígon Els Dolors Tel. 93 873 32 86

Hotel 1948 . Carretera de Santpedor 54 - 58, Tel. 938 748 216.

Hotel Els Noguers** . Avinguda Països Catalans, 167, Tel. 938 743 258.

Pensión La Masia . Plaça Sant Ignasi, 22, Tel. 938 724 237

Pensión Roser Manila Sant Andreu . Carrer Sant Andreu, 9, Tel. 938 725 908.

Radio Taxi Manresa . Tel: 938 744 000

Taxi Manuel Artero . 630 91 89 00

Taxis Manresa . Tel: 938 770 877

MONTSERRAT

Taxi Marcel . 607 329 946

Datu Interesgarriak

Kilometro zehar den etapa, aldapan behera eta "kanpoko" bidearen amaiera. "Ignazioaren Barruko Bidaiak" jarraitu egingo du, eta orain arte esperimentatu duguna baino indar handiagoz. Gure kanpoko helmugara iristearen pozak "urrunago eta gorago" bilatzera bultzatzen gaitu. Manresan, jesuitak eta Koban lagun dituzten laikoaren komunitatea izango ditugu zain, ahal duten abegi onenez hartuko gaituztenak, gure erromesaldia ahanzturan gal ez dadin.

CASTELLGALI: 1.700 biztanleko herria da, baina erromes tradizio handikoa. Herriaren jatorria ere oso antzinakoa da, iberiarren garaitik jada, mendiaren gailurrean duen kokapen ezin hobeagatik, Cardoner ibaiaren arroa zaintzeko. Erromatarrek Boades izena jarri zioten kokaleku honi. Erdi Aroan, Errepide Nagusian zehar igarotzen ziren erromesak ugari zirelako, Montserrat monasterioko bidean, ezaguna da Castellgali, bere ostatu eta errementaritza zerbitzuengatik. Zalantza handirik gabe, Ignazio erromesa behin baino

gehiagotan igaroko zen Castellgalitik, Montserraterako joan-etorrietan, Manresan egon izan zen denbora-tarte luzean. Gure helmugatik oso gertu, herri honek jatetxeak, supermerkatuak, botika eta bankua eskaintzen dizkigu.

SANTA CATERINA: Zelatatzeko dorrea.

MANRESA: Ignaziotar hiri honek hartu zituen lehen jesuitak 1602 urtean. Orduetik, hiri honek ignaziotar presentzia etengabea izan du, gaur beste bultzada bat hartzen badu ere “ignaziotar erromesen” iritsierarekin. Manresako toki ignaziotar ugariak bisitatu nahi izateak egonaldi luzeago batean pentsatzea ere merezi lezake ([turismo](#) weba kontsultatu). Sant Ignasi Kobaren Santutegia leku aparta da gure erromesaldia amaitzeko, gure barne esperientzia bildu, eta gure Ignaziotar Bidean seguruenera nabaritu izan ditugun argi-ilunak bereizteko. Ez dugu presarik izan behar ignaziotar espiritualtasunerako hain leku enblematikoa den honetatik joateko. Koban aurkituko dugu gure denbora antolatzeko behar dugun informazio guztia ([web](#) a kontsultatu). Manresako hiriak jatetxeak, supermerkatuak, botikak, osasun-etxea, bizikleta tailerrak, bankuak eta informazio-bulegoa (Tel: 93 878 40 90) eskaintzen dizkigu.

Oller del Mas: 500 años de historia acogieron a Íñigo el 1522. La [Heretat Oller del Mas](#) hoy tiene más de 1.000 años de historia, y, por eso, ya en 1522 la familia pudo acoger en su castillo a Íñigo durante su tiempo en Manresa. Testimonio de la devoción de la familia a san Ignacio es la capilla familiar del siglo XVII dedicada al santo. Generaciones se han sucedido en el castillo, pero la capilla se ha mantenido en el mismo sitio. Los peregrinos ignacianos pasan junto al castillo, que abre sus puertas para invitarlos a tomar una copa de vino, si disponen de tiempo para gustarlo.

Ignazioren arrastoak

Oharrak: Alaitasuna dugu bidelagun “kanpoko” erromesaldiko azken etapa honetan. Hainbeste itxarotako Manresako helmuga bertan dugu! Ez dezagun ahaztu “sarrerako otoitza” eta amaierako elkarrizketa otoitzaren amaieran eta egunean zehar. Utzi diezaiozun gure bihotzari espirituaren indarraz betetzen eta indar horrek lagun egin diezagula gure bizitzan mugarri izango den egun honetan. Gaurko [ignaziar pistak](#) gure barne erromesaldiko balizko jarraipenean sartuko gaitu.

Eskaria: Jainkoari eskatzen diot jasotako dohain ugarien barne ezagutza eman

diezadala eta gauza guztietan maitatu eta zerbitzatu dezadala Jainko Erregea.

Hausnarketak: Aita, Semea eta Espiritu Santua gure errealitateari adi daude beti gurekin beraien buruak partekatuaz. Truke honi esker, kontenplatiboak izan gaitzke ekintzan, hau da, gauza guztietan Jainkoa aurki dezakegu. Jesuiten 32. Kongregazio Orokorrean esan zuten “jesuiten komunitate bakoitzeko kide bakoitza ohartzen da San Ignaziok maitasunaz esaten duena, hau da, bakoitzak daukana eta bakoitza dena partekatzea dela maitasuna eta horrela maitatzen dela”. Gure gaurko meditazioa maitasunaren kontzeptu horri buruzkoa izango da, hau da, maitatzen duen horrekin bakoitza dena eta bakoitzak duena partekatzea dela maitasuna. Gogo-jardunetan maitasuna Jainkoaren borondate onetik nola emanda datorkigun ikustera gonbidatzen gaitu Ignaziok eta dohain eta grazia multzo horri guk ere eskuzabaltasunez eta maitasunez erantzun behar diogula. Ignazioren jarraipenak beteko ditugu, gure bihotzera Jainkoaren Maitasuna zabal dadin. Ignaziar kontenplazio honek urrats hauek ditu:

MAITASUNA LORTZEKO KONTENPLAZIOA.

Hasteko, bi gauza esan behar dira:

Batetik, maitasuna ekintzetan jarri behar da hitzetan baino gehiago.

Bestetik, maitasuna bi aldeen arteko komunikazioa da, hau da maitatzen duenak maitatuari eman eta jakinarazi egin behar dio zer daukan edo zer dezakeen eta gauza bera egin behar dio maitatuak maitatzen duenari ere. Beraz, batek jakituria badu, ez duenari emango dio, ohorea, aberastasuna baditu ere besteari emango dizkio.

Ondoren: sarrerako otoitzera itzuliko naiz eta dena Jainkoaren borondatearen arabera ordenatu dadila eskatuko dut.

Jarraian egingo dudanaren kontenplazioan jarriko naiz. Aita Jainkoaren, Jesus Semearen eta nigan gizatasuna sortu duen Maitasun Espirituaren aurrean nagoela irudikatuko dut.

Gaurko nahia kontziente egiten jarraituko dut: Jainkoari eskatuko diot jasotako dohain ugariren barne ezagutza izan dezadala eta horregatik guztiagatik esker onez beteta, Jainko Erregea maitatu eta zerbitzatu dezadala gauza guztietan.

Eta kontenplazioarekin hasiko naiz. Hasteko *gogora ekarri behar ditut*

Jainkoarengandik jasotako onurak, bai jaio naizelako bai Jesusek salbatu nauelako, bai neuk jasotako dohain partikularrengatik, Jainko gure Jaunak nigatik egindako guztia eta berak duenetik eta denetik emandako guztia maitasun ugariz haztatuta. Eta honekin neure buruaz hausnartuko dut, arrazoiz eta justiziaz hartuko dut kontuan nik neure aldetik Jainko Erregeari eskaini eta eman beharrekoa, hau da, nire gauza guztiak eta ni neu gauza horietan.

Gainera, nahi izanez gero, kontsekuente izan nahi duen hark eskaintza hau egingo duela izango dut kontuan: *Hartu, Jauna, nire askatasun osoa, nire oroimen, nire adimen eta nire nahimen osoa. Zuk eman didazu; zuri, Jauna, bihurtzen dizut, dena zurea da, egizu osoro nahi duzuna. Eman niri zure maitasun eta grazia, hori nahikoa dut eta.*

Lehenengo puntua amaitutakoan, Ignaziok bigarren bat proposatzen digu: *Jainkoa Kreazio osoan nola bizi den ikustea*. Izaki bizidunetan bizi da, naturako elementuetan, landareetan bizi da landare izanaz, animalietan zentzumenak emanda, gizakietan ulermena emanda, eta nigan ere bai izatea emanda, sustatu egiten nau, zentzua eman dit eta ulertarazi ere bai; era berean, Jainkoaren tenplu egin nau, Jainko Erregearen antzeko eta irudira sortu nau; gauza bera nigan pentsatuta ere, egiten dudanean nola bizi naizen eta noren zerbitzura jartzen dudana. Puntu hau amaitzeko, aurreko puntuko eskari bera egin: *Hartu, Jauna, nire askatasun osoa, nire oroimen, nire adimen eta nire nahimen osoa...*

Hirugarrena da *ikustea Jainkoak nola egiten duen lana eta nola saiatzen den nigatik lurrean hazitako gauza guztietan*. Baita zeruan, elementuetan, landareetan, fruituetan, ganaduetan, etab. ere eginaz, zainduaz, iraunaraziz eta zentzumenak emanaz, etab. Ondoren neure buruaz pentsatu eta nik maitasun horren truke egin dezakedanaz. Puntu honen amaieran ere, aurreko puntuko eskaintza bera egin: *Hartu, Jauna, nire askatasun osoa, nire oroimen, nire adimen eta nire nahimen osoa...*

Laugarrena: *ondasun eta dohain guztiak goitik nola datozen ikusi*, eta nire indarra Jainkoaren ahalmen amaigabetik dator eta nigan eta munduan jaso ditzakedan justizia, ontasuna, errukia eta beste gauza on guztiak ere bai, eguzki izpiak etortzen diren bezala, iturrietatik urak irteten duen bezala, etab. Ondasun guztien jatorria kontuan izan ondoren, neure buruarengan pentsatuaz amaitu, goitik jasotzen dudana nola itzultzen dudana ikusi. Puntu hau amaitzeko ere, aurreko puntuko eskaintza bera egin: *Hartu, Jauna, nire askatasun osoa, nire oroimen,*

nire adimen eta nire nahimen osoa...

Amaitzeko, ohiko elkarrizketa eta Aita Gurea esan.

Amaierako elkarrizketa: gure barne erromesaldiko etapa honetan gure lagun eta adiskide Jesukristorekin ibiltzen ohitu gara eta adiskideek elkarrekin hitz egiten duten adinako askatasunez hitz egiten dugu elkarrekin. Amaitzeko, "Aita Gurea" esan.

Autobiografia

Eta hortik Manresara bidean, kanpoko janzkera berri batekin eta denean Jainkoaren aintza handiena egiteko barruko asmo bero batekin... baina modu bortitz batean jabetu zen, gauzak ez direla errazak izaten behin ere, baita asmorik onenez egiten badira ere.

«Eta egunsentian abiatu zen inork ez ezagutzeko, eta ez zen Bartzelonarako bide zuzenetik joan, bera ezagutu eta goratu nahiko zuten jende asko aurkituko zuen beldur, eta Manresa izeneko herri baterako bidea hartu zuen, erabakia baitzuen egun batzuk bertako ospitale batean igarotzea, eta baita berak oso ongi gorderik zeraman bere liburuan zenbait ohar idaztea ere, asko pozten baitzuen liburu honek. Eta Montserratetik legoa bat bidera zihoala, gizon batek harrapatu zuen atzetik, presa handiz zetorrena, eta galdetu zion, ea berak eman ote zizkion bere jantziak behartsu bati, honek aitortu bezala; eta baietz erantzun zion, begietatik malkoa zeriola, bere jantziak eman zizkion behartsuaren errukiz; errukiz, izan ere, arropak ostu zituelakoan iraindu egin izango zutela ulertu baitzuen. Baina bera jendearen ospearen ihesi zebilen arren, ez zen Manresan denbora askorik pasa behar izan, jendea beragatik gauza handiak esaten hastera, Montserrateko gertakariak zabalduz; eta ospea zabaldu zen gero, zirenak eta ez zirenak esanez: ez dakit zenbat errenta utzi zuela, etab.».

«Eta hark egunero limosna eskatzen zuen Manresan. Ez zuen haragirik jaten, ez ardorik edaten, ematen bazioten ere. Igandeetan ez zuen barau egiten, eta ardo pixka bat edaten zuen ematen bazioten. Eta bere ilea zaintzen oso txukuna izan zenez, garai hartan ohi zen erara, ile egokia baitzuen berak, berez sortzen zitzaion bezala uztea erabaki zuen, ez orraztu eta ez moztu, ezta ezerekin estali ere, gauez zein egunez. Eta arrazoi beragatik, bere oin eta eskuetako azkazalak hazten ere utzi zuen, horretan ere oso txukuna izan baitzen beti.».

Ignaziok Manresan eman nahi izan zituen “egun batzuk” hamar hilabete pasa gertatu ziren, bere barne hazkuntzan. Jainkoak ez zeukan presarik berarekin eta, Jainkoari eskerrak, Ignaziok ere ez zuen presa handirik izan, beso zabalik hartu zuen herri hau uzteko, zenbait nabarmenkeria egin bazituen ere. Ignazioren erromesak, behar bada, bihurtutako zaldun honen antzera jokatu nahiko du, zerbaitetan; nola nahi ere, honez gero garaia izango da, agian, bizarginarengana buelta bat egin eta ilea mozteko.

Manresako Koban eskuorri txiki bat eskaintzen zaio erromesari, historia pertsonal interesgarri honen jarraipenarekin eta Manresan izandako esperientziaren zenbait osagairekin.

Iruzkina

Leave a Reply

Your email address will not be published. Required fields are marked *

Comment *

Name *

Email *

Website

Δ

Bizikletaz egiteko zailtasun ertainekoa

Santa Ceciliatik jaisteko, hobe da oinezko bidea ez hartzea eta lurrezko bidetik zuzen jarraitzea, gure ezkerrera etxe bat utzi eta uharra gurutzatuko dugu, hor izango dugu oinezkoekin Sant Cristófolera joateko hartzen duten lurrezko bidea. Castellgalítik behera, bizikleta ondoan eraman behar da eta kontuz ibili behar da C-55 errepidean ere.

Montserrat : Km 0.

Santa Zezilia Ermita: Km 3,5.

Sant Cristófol: Km 7,9.

Castellgalí Eliza: Km 14,3.

Riera de El Xup: Km 21.

Santa Caterina Dorrea: Km 23,5.


Manresako Koba: Km 24,6.

Bidea

Etapa eskema



Altimetria



Manresako eguraldian

[bidea ikustea wikiloc](#)

[gps-a deskargatzea](#)

[MapOut deskargatzea](#)

Galeria

Etapako Argazkiak




























































[aurreko etapa](#)

[Manresa](#)